

**UPPAREN ETA UPV/EHUREN ARTEKO  
TUTOREKIDETZA ERREGIMENEAN DOKTOREGO  
TESIAK EGITEKO PRESTATZEN ARI DIREN  
IKERTZAILEAK KONTRATATZEKO DEIALDIA 2018**  
***Emandako eta ukatutako eskaeren behin-betiko  
zerrenda***

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) onespena lortu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak argitaratu zuen

**UPPAREN ETA UPV/EHUREN ARTEKO TUTOREKIDETZA ERREGIMENEAN  
DOKTOREGO TESIAK EGITEKO PRESTATZEN ARI DIREN IKERTZAILEAK  
KONTRATATZEKO DEIALDIA 2018**

Eskaeren ebaluazio izapideak bukatu ondoren, IGBBk adostu zuen errektoreordetzaren webgunean argitaratzea onartutako eta ezetsitako eskaeren behin-behineko zerrenda.

Gero, izangaiek hamar eguneko epea izan zuten egokitzen jotzen zituzten alegazioak aurkezteko.

Izapide hori bukatu ondoren, ERABAKI DA errektoreordetzaren webgunean argitaratzea onartutako eta ezetsitako eskaeren behin betiko zerrenda.

**KONTRATAZIORAKO DOKUMENTUAK AURKEZTEA:**

Laguntza onartu duten onuradun guztiek **2019ko maitzaren 20a baino lehen** e-mail bidez bidali beharko dituzte [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus) helbidera honako dokumentu hauek PDF formatuan:

- Aurreko beken aitortpena
- Gizarte Segurantzako fitxa
- Lanean hasteari buruzko ziurtagiria
- Onuradunaren aitortpena
- Bi unibertsitateetako doktorego programetako matrikularen gordekina
- Doktorego programara sarbidea ematen du(t)en titulua(k) (gradua, masterra, lizentziatura).

Gero dokumentazio hori UPV/EHUko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute.

Erabili beharreko ereduak errektoreordetzako webgunean daude eskuragarri ("Dokumentuak" izeneko erlaitza).

**BEHIN BETIKO UKATUTAKO ESKAERAK:**

Alegazioak aurkeztu eta behin betiko ukatu dituzten eskaeren kasuan, beren alegazioak gaitzetsi dituztela ulertu beharko dute eskatzaileek. Alegazioak aurkeztu zituzten hautagaiek erantzuna postaz jasoko dute, baita nor bere eskaeraren ebazpena ere.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude haren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakiok erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua ezetsizat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: 123 eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailearen 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailearen 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

**OHAR GARRANTZITSUA:**

Aurkeztutako eskaera kopurua kontuan hartuta, eta eskatzaile guztiei ahalik eta azkarren erantzuteko asmoz, kontsulta guztiak posta elektronikoko bidez egin daitezela eskatzen da, helbide honetara idatzita: [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus) . Mezuaren gaian hau jarri: "UPPA 2018 deialdia".

Leioa, 2019ko maiatzaren 6a.

**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA**  
**IKERKETAREN GESTIOKO ZUZENDARITZA**  
**IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA**

NAN EDO PASAPORTEA	KODEA	2., 3. IRIZPIDEAK	4. IRIZPIDEA	1. IRIZPIDEA	PUNTUAZIOA GUZTIRA	BEHIN-BETIKO EBAZPENA
208501878	PIFPAU18/06	26,50	0	47,12	73,62	<b>EMANDAKOA</b>
16071359V	PIFPAU18/05	28,00	5	30,03	63,03	<b>EMANDAKOA</b>
71343484Z	PIFPAU18/10	30,50	8	20,28	58,78	<b>EMANDAKOA</b>
16098444P	PIFPAU18/09	35,80	0	22,68	58,48	UKATUTAKOA
72528689Y	PIFPAU18/11	19,50	5	30,98	55,48	UKATUTAKOA
45754529P	PIFPAU18/08	33,00	0	21,78	54,78	UKATUTAKOA
18060020Y	PIFPAU18/01	36,00	0	17,13	53,13	UKATUTAKOA
15CF20193	PIFPAU18/07	27,50	8	5,90	41,40	UKATUTAKOA